



Ez duk erraza, konpai
Koldo Izagirre

Liburuko lehen paragrafoak irakurtzen hasi bezain laster, zera pentsatu dut: “*Enfant terrible* baten aurrean nago”. Baina berdin dio. Ohituta nago. Baliteke ni neu ere beste holako bat izatea. Baliteke euskaldun guztiak beste holako batzuk izatea.

Egileak margolari bat dakarkit gogora, Habanako hiri-paisaia pintzelkada bakan batzuekin deskribatzea lortzeko duen trebezia dela eta. Izagirreraren deskribapenak “koloretsuak” dira; laburrak baina eraginkorrak, esanguratsuak eta iradokorrak dira.

Beste batzuetan, euskara hodei batean bezala igarotzen da, eta ukitu susmagarriro abstraktua hartzen du. Efektu hori agerikoagoa da esaldi batzuetan beste batzuetan baino. Esaterako: “*Egun Kuba sozialista eta dibisabeharrak aberats yatedunentzat egina dizun Marina Hemingway luxuzko antolamenduaren lekuan zegoen Marianao hondartzako Summer Casino Jai-Alai frontoiko intendente bezala ageriko zaizu 1928an Andres Trecet hau.*” [Päg. 47). Irentsi egin behar ditxosozko esaldi hori...

Euskal idazle askorengan badago fanatismo-suerte bat. Nik, egia esateko, ez dut ikusten zer oker eduki dezakeen onartzeak zenbait gauza ez zirela guk uste bezain politak. Errusiako iraultza, adibidez. Eta pertsonaia beldurgarri batzuek –Stalinek, kasu– lortu bazuten iritsi ziren tokira iristea, aldez aurretik bidea erraztu zieten batzuk egon zirelako izan zen: Lenin, Trostky (azken hau, hark berak ehotzen lagundu zuen armiarma-sare gorrotogarriaren biktima). Kronstadt-eko marinela izango ziren, ziur aski, iraultzak benetan nondik nora jo behar zuen hasieratik bertatik jakin zuten bakarrak. Aldiz, boltxebikek eurek suntsituak izan ziren, gau bakarrean itsasgizon zoragarri haietako 15.000 inguru basora eraman eta hantxe fusilatu zituztelarik, euren hilobiak zulatzeraz behartu ondoren... Errusiako iraultza osoa dago mota horretako sarraskiz josita. Baita okerragoz ere. Eta ez da harrizkoa, dena hasi baitzen estatu-kolpe batekin. 50 urte geroago, badakigu Errusiako iraultza nola amaitu zen. Ibilbide benetan motza. Baina, zer nahi duzue, gaizki hasten denak... gaizki bukatu behar.

Dena den, Kubako kasua, neurri handi batean, bestelakoa da. Orduko egoerak direla-eta, deabruarekin batu behar izan bazuen ere... gustatuko litzaidake niri Latinoamerikak ezagutu dituen diktadore guztiak Fidel bezalakoak izan balira! Horrekin ez dut ezer idealizatu nahi, baina zer karajo”: Zesarri... berez dagokiona!

Aurreko bi paragrafoetan azaldutako gogoetek ez dute zerikusirik liburuarekin, baina burura etorri zaizkit, Kubaz eta iraultzaz ari garenez gero...

Bestalde, egileak ere halako kontraesan batzuk bilatzen dizkio Fidelen Kubari. Bera kezkatzen duten detaile batzuk topatzen ditu (liburutegi nazionalean egon behar luketen liburuak dólara batzuen truk erraz jasotzeko aukera, kasu), eta ahalmen kritikoa (gauza hutsalekikoa beraz) erakutsiz, agerian jartzen ditu egileak. Hori berez ez da txarra. Azken finean, iraultzen arazoa hori izatenda da: egun batean, boterera iristen direnek

kritikaz baliatzeari –eta, batez ere, autokritikaz baliatzeari– uzten diotela. Iraultza askok hortxe hartzen dituzte inora ez daramaten bideak (gogoeta honek gai askotara proiektu genezake, baita –nola ez– Euskadiko gaietara ere).

Nobelari berriro helduz, “zaratadun” argazki batek eragiten duen antzeko efektua eragin dit liburuak, hau da, argazkia hor dago, islatzen duena eta erakusten duena hortxe dago, baina halako “distortsio” batez helarazita. Argazkigintzan efektu honi “zarata” esaten zaio. Zarata, berez, efektu berezi bat da, eta graduagarria da. Zarata-maila batzuk daude eta edozein argazki-programak eskaintzen ditu, baita errazenean eta amateurrentzat diseinaturikoek ere. Gero, beste kontu bat da argazkia ezbeharrez-edo zaratarekin ateratzea, argazkilariak nahita bilatu gabe alegia. Bigarren aukera efektu hori nahita bilatzea da. Bigarrena lehena baino hobea da, noski; arte hori praktikatzeko duenaren aldetik teknika oso ondo ezagutzen duela esan nahi du eta. Koldo Izagirreraren liburuaren kasuan, ez dakit efektu hori nahita ala nahigabe bilatu den, baina badakit gauza bat: “zarata” efektua ez dudala oso gogoko, eta are gutxiago nobela oso bati aplikatuz gero. “Zaratak” nobela osoan ustez argi eta garbi erakutsi behar den gidoiaren garapen normala eragozten duelako. Jakina, nork bere metodoa du. Hori ere horrela da, baina beno, irakurle gisa hori da nire jarrera: gidoi gehiago eta zarata gutxiago.

Bestalde, hitz afrokubatarrak erabiltzea lagungarria gerta daiteke, nobelaren helburu den lekuan liburua kokatzeko: Kuban. Edota erakutsi nahi den errealitatea hobeto islatzeko. Baina pittin bat astuna egiten dela ere esan beharra dago, eta azkenean, apur bat “gogaituta”, apur bat “galduta” bukatzen duzu kreolerazko hitz ugariak direla-eta.

Nobela laburra da; berrogeita hamar orri gehiagorekin-edo, ziur aski hilda utziko zukeen. Liburua irakurtzen bukatu ondoren, zera pentsatu dut: “Ondo da, kito, bukatu da. Nobela irakurri izanaz pozten naiz, baina baita bukatu izanaz ere”. Besterik ez.